

Ilusioa

Joseba Otondo

Ilusioa salgai berrien zirrurarekin nahasten dugun garai hauetan, aldaketa sozial eta politiko sakonek behar duten aldarte baikorra eta ilusioa nola mantendu, nola hauspotu da gakoa. Prozesu sozial eta politiko konplexuen alderdi kamutsak, ingurune soraioak, norgehiagoka ahigarriak nornahi higitzeko gauza dira. Sistemaren mende dauden komunikabideen agenda bihurria eta azpijoko zikina, hautetsi zoldatsuen zinismoa, jendearen apatia edo “nirea zertan” batzuen kezka bakarra; eta guztia boro-biltzeko maiz norberaren taldeetan izaten diren jarrera sektarioak eta talde erabakiekiko mespretxu eta aldebakarreko

jokaerak ez dira nolanahiko kontuak animoa goratzeko edo apaltzeko. Halakoetan aldaketarako iruditegi indartsu batek lanak pixka bat errazten ditu. Baina gurean iruditegi hori franko gastatua dagoela dirudi. Iraultzarik, orain guttienez, eginen ez dugula bistakoa da, baina iraultzarekin ez amestea kontu guztiz desberdina da. Gatzgabeko diskurtsoa, forma behin eta berriz erabiliak, askapen prozesu mundialekiko urruntasuna... XXI. mendeko Euskal Herrian askapen integral baterako iruditegia eta praxia zeintzuk diren eta nola eraiki behar diren zehaztea eginkizun saihetsezina da.

Balizko Euskal Estatua lauza bezala ageri da. Estatu espainiarretik zein estatu frantsesetik bereiz baina balizko burokrazia berri baten pisuarekin. Dagoena txukunago eta jatorrago, kontua hori dela ematen du. Dinamika hausle herritarra, anitza baina batera aritzeko gogoz dagoena falta da; bizitzeko, aritzeko, pentsatzeko balio eta jarrera iraultzaile sortzaileak. Edozein gatazka, psikologikoa den borroka da. Ilusioa norberaren aldean jartzea, ilusionaturik egotea, edozertarako oinarria da. Bertzenaz, lugorria. Iraultzailea ez den zerbait ilusionagarria izan al daiteke? Kontsumitzaile herabe izatea edo azken hauteskaintzari boza ematea aski erraza da. •

Malagako bortxaketaren harira

Galder Gonzalez

Malagan bost gazteren artean neska bat bortxatu dutela (agian “antza” esan beharko nuke) albiste izan da hainbat komunikabideetan egunotan. Ez bakarrik bortxaketa bera (tamalez) ohituta gaudena baino krudelagoa izan delako, baizik eta bere ondorioz sortu diren iruzkin, komentario eta irudiak direla eta. Alkate frankista bat (literalki) izan dugu telebistan esanez ez dela hain larria, «horrelakoak urtero milaka gertatzen dira-eta». Ondoren atxilotuak aske uztea, txalo artean (beno, uler nezake familiak errugabetasunean sinestea), eta, tamalgarriena, Antena3 telebista katean zuzene

neko elkarrizketa batean ikustea (argudiaketa surrealista batekin). Hurrengo egunean ETB2ko “Sin ir más lejos” saioan egunotan UPVren udako ikastaroetan hitzaldia emango duen Urria abizeneko tipo bat. Bere ustez onena dela bortxatzaile zein pederastak bere buruaz beste egitera bultzatzea. Txaloak “karkundiaren” aldetik. Kartzelak, psikiatrikoek edo bestelakoek balio ez dutenez (ez dutelako balio, baina hau beste eztabaida bat litzateke), eta heriotza zigorra publikoki defendatzea konplexua denez, ba, hobere-na, jendea suizidiora bultzatzea. Hori delitua dela kontuan hartu gabe, azpitik dagoen ideia bera da: bortxaketak edo

pederastia (dena delakoa jar ezazu zerrenda honetan) arazo indibidualak dira, gure kode zibiletan argi eta garbi dagoelako idatzita delitu horiek ezin direla egin. Arazoa pertsonala denez, soluzioa ere pertsonala da (ETB). Arazoa pertsonala denez, agian erasotzaileek zein erasotakoek dute denaren ardura (Malaga). Baina inolaz ere, inon, ez dugu entzungo patriarkatuaren inguruko eztabaidarik, txikitatik eskolan, etxean zein telebistan ikasten dugunaren ingurukorik, sistema osoak ezarritako biolentzia sinboliko eta erreal guztiaren inguruko kritikarik. Horrek ez du saltzen. Hurrengo bortxaketara arte! •